

GASTUAK

Hitzartutako prezioaz gain, etxebizitzaren salerosketek honako gastu hauek sortzen dituzte:

Higiezineta agentearen ordainsariak, salerosketa agente-bidez egina bada. Saltzaileak ordaindu ohi ditu ordainsari horiek. Ordainsari hori erosketa-prezioaren ehuneko jakin bat izaten da (oro har, % 3) eta horri BEZa gehitu behar zaio (% 16).

Etxebizitza eraiki osteko lehen eskualdaketa bada, BEZa % 7 izango da (% 4 erregimen bereziko edo sustapen publikoko Babes Ofizialeko Etxebizitzak badira) eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zerga erosketa-prezioaren % 0,5 izango da (Babes Ofizialeko Etxebizitzak salbuetsita daude).

Etxebizitzaren bigarren edo hurrengo eskualdaketak badira, Ondarezko Eskualdaketen gaineko Zerga ordaindu behar da. Zerga horren tasa orokorra % 6 da. Araban, zerga-tasa % 4 da, eta % 2,5era murrizten da etxebizitzak 120 m² baino gutxiago baditu eta erosleak udalerrri berean beste etxebizitzarik ez badu.

Notarioen ordainsariak eskritura publikoa egiteagatik, eta erregistratzaileen ordainsariak etxebizitza Jabetza Erregistroan inskribatzeagatik. Gainera, tramiteak geuk egiten ez baditugu, kudeaketa-gastuak ordaindu beharko ditugu.

Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergak (Udal Plusbalioa esaten zaio) azken eskualdaketaz geroztik eraikinaren oinarrian dagoen lurzorua izan duen balio-gehikuntza zergapetzen du. Saltzaileak ordaindu beharreko zerga da.